



11/13 MAKROEPAIKETA

Espetxeak bete kartzelak hustu nahi zituztenekin?

Irailean ikasturte politikoa hastearekin makroepaiketa berri bat abiatuko da Espainiako Erreinuko Auzitegi Nazonalean. 2007ko 18/98 epaiketaz geroztik euskal herritar gehien epaituko dituen epaiketa da. Baita ere espetxe zigor eskari handienarekin hasten dena: 8 eta 20 urte eta erdi artekoak auzipetu bakoitzarentzako, 601 urte orotara. 47 auzipeturi terrorismo delituak egozten dizkio estatuak, Etxeraten, Jaiki Hadin, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren (EPPK) Bitartekaritza Taldean edo Herriran egiten zuten lanagatik. Elkartasuna antolatzen hasi da pixkanaka batean eta bestean.

 **Z. OLEAGA**

Irailaren 16an hasiko da epaiketa. Asko dira auzipetuak, 160 inguru defentsen lekukoak. Hiru hilabete eman beharko dituzte auzipetuek aste bitartean Madrilera jaitsi eta igo. Estatuaren fiskaltzaz gain bi bik-tima elkartek akusazio partikular gisa jardungo dute: Daniel Porterok gidatzen duen Dignidad y Justiziak eta AVT.

2019an epaituko dituzte 47 euskal herritarrek, baina 2013an egin zituzten auziari loturiko estreinako atxilotetak estatuako segurtasun indarrek. Guardia Zibilak burutu zituen polizia operazioa guztiak, beti ere Eloy Velascok zuzentzen duen Auzitegi Nazonaleko seigarren Instrukzio Epaitegi Zentraltan aginduak betez. Herriraren aurkako sarekada izan zen lehena, errenkadan etorri ziren hurrenak.

INJUSTIZIAREN KRONOLOGIA

2013ko irailaren 30ean Guardia Zibilak 18 pertsona atxilotu eta inkomunikatu zituen Herriraren aurkako operazioan. Preso eta iheslari politikoen aldeko mugimenduaren lokalen itxiera eta bi urterako bere jardunaren suspentsioa aigin-

du zituen Velasco epaileak. Urriaren 3an behin-behinean aske geratu ziren atxilotuak. Epaileak naziotasun frantziarra duen Emilie Martinen aurkako Atxilotze Agindu Europarra ere igorri zuen, baina bi urtera auzibidetik kanpo geratu zen.

2014ko urtarrilaren 8an EPPK-ren Bitartekaritza Taldeko zortzi kide izan ziren atxilotutakoak, tartean hiru abokatu. Bost eguneko inkomunikazio aldiaren ostean zortziak espetxeratu zituzten. Urtarrilaren 16an, operatibo berdinen barnean, Naia Zuriarrainek auzipetu moduan deklaratu eta behin-behinean aske geratu zen.

Urtebetera euskal preso eta iheslari politikoen abokatuen aurkako operazioa agindu zuen Auzitegi Nazonalak. Hamabi abokatu atxilotu eta haien bulegoak miatu zituen Guardia Zibilak 2015eko urtarrilaren 12an. Herrirako hiru kide ere atxilotu zituen, terrorismoa finantzatzea leporatuta. Egun berrean Bilboko LABen egoitzan sartu zen Guardia Zibila, eta urtarrileko presoan aldeko manifestazio erraldoian herritarrek preso eta iheslarien sostengu ekonomikorako emaniko dirutza (104.000

euro) eraman zuen. Abokatuak urtarri-laren 14an aske geratu ziren, epaiketa-ren esperoan. Herrirako kideak, aldiz, espetxeratuak izan ziren. Velasco epaileak Iñaki Goioaga abokatu eta senatariaren auzipetzea ere eskatu zion Espainiako Epaitegi Gorenari.

Lau dira leporatzen dizkieten delituak: talde terroristako kide izatea, terrorismoaren finantziarioa, terrorismoari gorazarre egitea, eta kautelazko neurrien urratzea

Kate errepresiboak ez zuen etenik. Azken operaziotik hiru hilabetera, 2015eko martxoaren 15ean, Etixerat eta Jaiki Hadi izan ziren jomuga. Elkarre bakoitzeko bina pertsona izan ziren atxilotuak eta inkomunikatuak, horietako



AUZIPETUEN ALDEKO DINAMIKA HERRITARRAK SORTU DIRA HERRI ETA AUZOETAN. GASTEIZKO ALDE ZAHARREAN ANE ZELAIA AUZIPETUA BABESTEKO AUZOKIDEEK EKITALDIA ANTOLATU ZUTEN. IRUDIAN, TALDE ARGAZKIA.

hiru psikologoak. Guardia Zibilak psikologoaren psikologo-paziente arteko dokumentazio konfidentziala eraman zuen miaketetan. Bi eguneko inkomunikazio aldiaren ostean 15.000 euroko fidantza ordainduta atera ziren kalera laurak, behin-behineko askatasunean.

ESKUBIDE INDIBIDUAL ETA KOLEKTIBOEN ZANPAKETA MASIBOA

Lau dira oro har estatuak 47 auzipetuei leporatzen dizkien delituak: talde terroristako kide izatea, terrorismoaren finantziakzioa, terrorismoari gorazarre egitea modu jarraian, eta kautelazko neurrien urratzea. Ordea, delitu larri horien froga bezala aurkezten diren jarduerak publikoak izan ziren uneoro: auzipetuek prentsaurrekoak ematen zituzten, txostenak osatzen, mobilizazioak antolatzen, eragile sozial eta politikoen bilerak egiten.

Eskubide indibidualei dagokienez, baldintzapean aske geratutako auzipetu guztiek hilabetero epaitegian sinatu beharra dute, pasaporteak kendu zieten eta estatutik irtetea debekatua dute. Herriko kideei presoaren aldeko mobiliza-

zioak "antolatze" zein horietan "parte hartze" debekua dute. Abokatuek eta psikologoez ezin dute presorik bisitatu, euren lana izugarri mugatzen duena. Bitartekaritza taldeko pertsonen kokak bat harago doa errepresioa: Gehienek urte bete eman zuten espetxean, 20.000 euroko fidantzarekin irten arte. Jon Enparantzak eta Arantza Zuluetak bi eta hiru urte bete zituzten preso hurrenez hurren, isolamendu neurri oso gogorretan.

Eskubide kolektiboen arloan ere urraketen zerrenda mardula da oso. Askatasunerako eskubidearen eremuan, adibidez, justifikatu gabeko espetxeratzeko prebentiboak agindu zituzten epaileek. Elkartze eta adierazpen eskubideetan, Herriraren jarduna debekatzeaz gain 38 web orrialde, 32 twitter kontu eta facebookeko beste 125 itxi zituen estatuak. Sekretu profesionala urratu zen abokatu eta psikologoaren kasuetan. Baimenik gabeko miaketak ugariak izan ziren eta zenbait atxiloturi asistentzia legala ukatu zitzaizkien, defentsarako eskubidea ezerezean utziz. Zulueta eta Enparantzaren integritate fisikorako eskubidea larriki urratu zen.

38 MOTXILADUN UME GEHIAGO?

Hamazortzi urtez azpiko 38 haur eta neraberen gurasoak daude 47 auzipetuen artean. 38 horietatik 25ek sei urte dute gehienez ere. Hau da: 11/13 sumarioari loturiko lehen atxilotetak gertatu zirenean jaio gabe zeuden. Egun 113 dira Euskal Herriko gatazka politikoa medio, gurasoetako bat edo biak espetxean dituzten adingabeak, kopurua heren batean igoztea litzateke, beraz.

Sarek *Motxiladun Umeak* txostena aurkeztu zuen 2017ko azaroan. Guraso bat edo biak espetxean dituzten umeak agertu ohi dituzten sintoma psikologiko ohiak jasotzen dituzten txostenak: garapen goiztiarra, antsietatea, erruduntasuna, loaren alterazioa, galerarekiko beldurra, haserre edo esperantzarik eza. Haurretan ez ezik, espetxeak guraso, familia eta hurbileko lagunengan ere sortzen duen sufrimendua handia eta askotarikoa da.

EGOERA POLITIKOARI LOTURIKO ERABAKI POLITIKOAK

Operazio horiekin guztiekin, preso eta iheslarien eskubideen aldeko mugimendua eta haien babes legal eta asistentziala oztopatu nahi zituen estatuak. Ez zen nolanahiko unea Euskal Herrian. 2011n ETAk bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuen. Posizio politikoen arteko indar harremanak aldatuz zihoazen, eta gatazkaren konponbidearen esparruan presoaren auzia gakoa zen politikoki eta emozionalki: agenda politikoa lehenera zegoen urte horietan. Testuinguru horretan jaio zen Herriak, 2012ko otsailaren 5ean. Denbora laburrean indar dezentez errotu zen maila nazionalen eta hainbat herritan (250 herri-bilgunetik gora herri eta auzoetan). Gorako bide horretan "Tantaz tanta, itsasoa gara" ekimen anbiziotsua aurkeztu zuen Herriak 2013ko irailaren 14an. Bi aste geroago atxilotu zituzten mugimenduko hamazortzi kideak eta debekatu elkartearen jarduna, preso eta iheslarien aldeko kale giharra dezente ahulduz.

Garai erabakigarriak baziren kalean, ez ziren gutxiago espetxeetan. Erabaki

politikoki garrantzitsuen eta sentiberen inguruan ari zen eztabaidatzen EPPK. Bitartekaritza Taldeko kideen eta abokatuaren aurkako sarekadek espetxean beti zaila den barne eztabaida are gehiago zaildu zuten. Euskal Herriko eragile politiko eta sozialekin komunikazio bideak moztu zituen, hain zuzen ere indartu nahi ziren unean.

Estatuaren estrategia errepresiboak bere helburuak lortu zituen neurri batean. Preso eta iheslarien aldeko mugimendu herritarra txakalaldian sartu zen. Presoak euskal jendartetik eta haien artean isolatuagoak geratu ziren. Presoen auzia tentsio gune handienetarikoa bilakatu zen egoera politikoaren analisi ezberdinak egiten zituzten ezkerreko abertzaleen artean. Urte horietan sortu zen Amnistia eta Askatasuna, ezker abertzaleko ahots disidentea.

Baina estatuak ez du lortu nahi zuen guztia. Presoen aldeko mugimendua eta ekimenak egoten jarraitzen dute. Indar mobilizatzailea mugatuagoa bada ere, oinarritzko eskaeren inguruko adostasunak zabalduz joan dira. EPPK-k bere eztabaida amaitu ahal izan zuen.

Operazio horiekin guztiekin, preso eta iheslarien eskubideen aldeko mugimendua eta haien babes legal eta asistentziala oztopatu nahi zituen estatuak

1936an, 1977an, 2013an edo 2019an, espetxeak inpunitatearen eta zigorraren espazio opakuak dira, lekukorik amestitzen ez dutenak. Bidegabekerien lekukotasuna eman eta presoek laguntza ematen zieten herritarrak kondenatu nahi ditu estatuak. Gatazka armatuaren ziklo luzea gutxienez justizia terminoetan ixteko lanean ari zirenak zigortu nahi ditu, zer eta iraganeko "dena ETA da" estatu-arrazoiaren izenean. Espetxeak hustu eta iheslariak etxeratu nahi zituzten auzipetuek; ETAk bere jardura armatuaren amaiera iragarri eta zortzi urtera, estatuak beraiekin bete nahi ditu espetxeak.

47ak herrian



Talde argazkian zazpi auzipetu falta dira.

Ondoko orriko taularen legenda

*Egortzitako delituen laburdurak:

Zuz. Kidetza: Talde terroristako zuzendaritzako kide izatea

Kidetza: Talde terroristako kide izatea

Goratzea: Terrorismoa jarraian goratzea

Finantzatzea: Terrorismoaren finantzatzea

BN Haustea: Baldintzapeko neurriak haustea

**Inhabilitazioen laburdurak:

Berezia: Inhabilitazio berezia lan edo kargu publikorako

Osoa: Inhabilitazio osoa espetxe zigorra baino X urte gehiago

	Auzipetua	Lan eremua	Egotzitako delituak*	Espetxe urte eskaera	Inhabilitazioa**
1	Arantza Zulueta Amutxastegui	Bitartekaritza	Zuz. kidetza	14	Berezia: 15 urte / Osoa: 10 urte
2	Jon Enparantza Aguirre	Bitartekaritza	Zuz. kidetza	14	Berezia: 15 urte / Osoa: 10 urte
3	Jose Luis Campo Barandiaran	Bitartekaritza	Kidetza	12	Berezia: 14 urte / Osoa: 10 urte
4	Asier Aranguren Urroz	Bitartekaritza	Kidetza	12	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
5	Aitziber Sagarmínaga Abad	Bitartekaritza	Kidetza	12	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
6	Egoitz Lopez de Lacalle Uribarri	Bitartekaritza	Kidetza	12	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
7	Aintzane Orkolaga Etxaniz	Bitartekaritza	Kidetza	12	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
8	Mikel Almandoz Erbiti	Bitartekaritza	Kidetza	12	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
9	Jon Garay Vales	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
10	Jose Antonio Fernandez Hernando	Herrira	Kidetza / Goratzea	15	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
11	Sergio Labayen Alonso	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
12	Imanol Karrera Turrillo	Herrira	Kidetza / Goratzea / BN haustea	14,5	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
13	Ane Zelaia Viguera	Herrira	Kidetza / Goratzea / BN haustea	14,5	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
14	Nagore Garcia Bohollo	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
15	Gorka Gonzalez Gonzalez	Herrira	Kidetza / Goratzea / BN haustea	14,5	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
16	Amaia Esnal Martiarena	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
17	Jose Manuel Ugartemendia Isasa	Herrira	Kidetza / Goratzea	14,6	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
18	Jesus M ^a Aldunberri Urkizu	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
19	Beñat Zarrabeitia Asensio	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
20	Eneko Villegas Amezketa	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
21	Roberto Noval Arostegui	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
22	Ibon Meñika Orue-Etxebarria	Herrira	Kidetza / Goratzea	15	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
23	Oscar Sanchez Setien	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
24	Eneko Ibarguren Agirre	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
25	Ekain Zubizarreta Iribecampus	Herrira	Kidetza / Goratzea	13,6	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
26	Jon Mindegiaga Oiarbide	Herrira	Kidetza / Goratzea	15	Berezia: 13 urte / Osoa: 10 urte
27	Alfonso Zenon Castro	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
28	Kepa Mantzisor Txirapozu	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
29	Eukene Jauregi Lejona	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
30	Ane Ituiño Perez	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
31	Aiert Larrarte Aldasoro	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
32	Ainhoa Baglieto Gabilondo	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
33	Arantza Aparicio Lopetegi	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
34	Onintza Ostolaza Arruabarrena	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
35	Haizea Ziluaga Larreategi	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
36	Amaia Izko Aramendia	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
37	Jaione Carrera Ciriza	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
38	Atxarte Salvador Navarro	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
39	Francisco Balda Araña	Herrira	Kidetza / Goratzea / Finantzatzea / BN haustea	20,5	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
40	Javier Carballido Ezkerra	Herrira	Kidetza / Finantzatzea	17	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
41	Nagore San Martín Monton	Herrira	Kidetza / Finantzatzea	17	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
42	Oihana Barrios Salinas	Jaiki Hadi	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
43	Izaskun Abaigar García de Azilu	Etixerat	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
44	Fernando Arburua Iparragirre	Jaiki Hadi	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
45	Nagore Lopez de Luzuriaga Comunion	Etixerat	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte
46	Naia Zurriarain Mendiguren	Bitartekaritza	Erakunde terrorista laguntzea	8	Osoa: 10 urte
47	Iñaki Goyoaga Llano	Abokatuak	Kidetza	11	Berezia: 12 urte / Osoa: 10 urte

IKER URBINA, ABOKATUA

“Agenda politikoan presoena gai zentrala bihurtzea zen Espainiako Estatuaren beldur nagusia”

Iker Urbina Fernandez gasteiztarra defentsa abokatuetako bat da 11-13 makroepaiketan. Sumarioak bost atal ditu, eta Herrirari dagokionean ari da. 2000. urtean hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalen euskal preso politikoaren kasuak eramaten. Kongresutik ere ezagutu du Madril, 2011-2015 legeitzaldian diputatu aritu baitzen EH Bildu koalizioaren ordezkari bezala. Irailean hasiko den epaiketari begira, esperantza eta beldurra nahasten dira bere hitzetan.

 Z. OLEAGA  DOS POR DOS

Irailaren 16an hasiko da epaiketa. Zeintzuk dira Fiskaltzaren, akusazioen eta defentsen abiapuntuko tesiak?

Abiapuntu nagusia beste hainbat prozeduretako berbera da. Zenbait eragile kokatzen dituzte ETaren espetxe aparatuen barruan, oraingoan presoan alorrean lan egiten dutenak. Lehen aldiz eragileez gain profesionalak ere auzipetu dituzte. Defentsari dagokionez, oinarria da eragile eta pertsona horiek ez zirela ETaren parte, ez espetxe aparatuen eta beste inongo aparatuen; haien lana erabat publikoa zela, presoan eskubideen ingurukoak. Defentsen oinarri komuna da hori, pieza eta eragile ezberdinak baitaude, bakoitza bere berezitasunekin eta defentsa ildo propioekin.

Epaiketa honetan berezitasun garrantzitsua dago. Leporatzen dizkieten egitateak 2012tik aurrerakoak dira. Hau da, ETA erakundeak bere jardura behin betikoz eteteko erabakia publiko egin ostekoak. Hori berria da, aurreko makrosumarioetan ez da eman. Ikuspuntu politikotik garrantzia du. Baina ikuspegi juridikotik ere ematen digu aukera [ETA-

ko] kideztza delituaren inguruko zenbait ezaugarri zailtzen jartzeko.

Berezitasun horrek Espainiako Auzitegi Nazionalen eragina izan dezake?

Izan dezake. Kideztza delitua leporatzeko beharrezkoa da erakunde armatu aktibo bat egotea. Jardura desagertuta egonik, delituaren elementu oinarritzako bat zailtzen jarri dezakegu.

Badago beste kontu garrantzitsu bat. Auzipetuek adierazi zuten presoan eskubideen errespetuaz gain agertoki politiko berri bat ere ari zirela bultzatzen. Eta agertoki hori gauzatzen joan da. Besteak beste, ETA desagertu egin da. Hori epaitegiak ezin du ukatu, ez da balizko egoera bat, objektiboa da. Baina Auzitegi Nazionala da eta badakigu hor bestelako indarrak eta eraginak sartzen direla jokoan.

Espainiako Estatuak eta biktimen elkarrekin argudiatu dezakete jardun armatua bai, baina jardun terrorista ez zela amaitu 2012an. ETA 2018an desegin zen.

Saiatu daitezke, noski. Baina gure tesia da kideztzagatik zigortzeko talde armatu bat egoteaz gain ekiteko borondatea ere egon behar duela. Eta 2012an publikoa zen hori ez zela gertatuko.

Dena den, kontu zehatzago eta tekniko horiek zein beste batzuk eztabaidara eramango baditugu ere gure defentsa lerro nagusia aurrerago dago: pertsona, antolakunde eta profesional horiek ez ziren ETaren parte. Presoen eskubideen eta agertoki berri baten aldeko lana egiten zuten, aldarrikapen politikoak barne.

Borroka armatuaren eta lege kanporatze politiken garaian estatuak ez zuen Etxeraten edo abokatuen aurka egin. Borroka armatua amaituta, aldiz, muga horiek gainditu ditu.

Zerikusi handia du bizi zen une politikoa-rekin. Euskal jendartearen oso hedatuta zegoen, eta hein batean badago, presoan gaia konpondu beharra zegoela gatazka politikoa konpontze bidean jartzeko. Nire inpresioa da estatuaren ekimena oso bideratua zegoela presoan inguruan sortu ahal zen aldarrikapen komun oso zabal bat desaktibatuzera edo lausotzera. Au-

zia klabe horretan ulertu daiteke soilik. Ez zen izan une bateko operatibo bat, 2013an hasi eta bi urtetan eman ziren atxilotetak, oso modu neurtuan.

Presoena Ezker Abertzalean oso gai sentibera da. Hor kolpatzean barne tentsioak piztu nahi izan zituen estatuak?

Seguru. Estatuak ondo daki presoan gaia Ezker Abertzalearen barruan garrantzi handikoa dela. Baina nik uste dut une hartan Espainiako Estatuaren beldur nagusia zela presoan gaia agenda politiko orokorrean finkatzea, konpondu beharreko elementu bezala. Ezker Abertzalearen arazo partziala izango zela ziurtatu nahi zuen.

Denbora asko eman duzu Madrilen, bai urte luzez abokatu bezala salbuespen epaitegien bueltan, bai Espainiako Kongresuan lau urtez EH Bilduko diputatu bezala. Aldaketarik sumatu duzu han?

Ziur naiz Espainiako Gobernuaren esparru batzuetan epaiketa hau ez dela bizi duela urte batzuetako makroepaiketen antzera. Horrek esan nahi du erabat aldatu dela? Ez. Baina estatuak epaileei egiten zien presioa horrelako jarduerak zigortu zitzaten ez da orain hamar urtekoa. Kasuan kasukoa izan daiteke, baina ez orokorra. Hor alde garrantzitsua dago, aukera ematen duelako epaileek beste malgutasun batekin aztertzeke egitateak. Hori esanda ere, Auzitegi Nazionalak ezohiko organo judiziala izaten jarraitzen du, eta bere funtzioa betetzen du. Eskae-rak hor daude, oso gogorak. Eta ziur naiz epaiketa egiten bada fiskalak zein akusazio partikularrek eskaera horiek mantenduko dituztela.

“Dena ETA da” tesitik sortutako azken makroepaiketak espetxeratzeak ekidin zituzten akordioekin itxi ziren, edo eginda ere epaia errugabetasunezkoa izan zen. Horrelakorik errepikatuko dela pentsatzeko motiborik bada?

Egun epaiketa da duguna, eta buru belarri ari gara prestatzen. Ez dago bestelako elementurik. Horrek ez du kentzen beste epaiketa batzuetan egin dugun bezala guk ere aztertu dugula akordioaren aukera, saiatzen ari garela. Besteak beste, dauden eskaerak oso handiak direlako, eta oso kontziente garelako juridikoki ditugun argudioak sendoak izanik ere Auzitegi Nazionalan gaudela, eta ondoren Gorena datorrela. Baina uneotan ez dago aukera-



rik, errealitate bakarra epaiketarena da, eta uste dugu arrisku handia dagoela pertsona asko kondena larriekin irteteko.

Kanpo aldagaiek epaiketa baldintzatu dezakete? Eskuin espainolisten oldarraldiak edo Kataluniako egoerak, esaterako.

Pertsonalki, ezezkoan nago. Esan bezala, honakoa egoera berezia da. Pertsona batzuei pertenezia deli-tua leporatzen zaie ETak bere jardueran

bertan behera utzia zuen garaian, eta urte gutxira desegin egin zen.

Epaileentzat ere bada berezia, horri heldu behar diote ildoan markatu dezake juridikoki.

Konbentzitura nago epaiketa bi gako nagusiren inguruan ardatzuko dela: bat, auzipetutako pertsonak ETako militanteak ziren edo ez; eta bi, epaileek kidetza “frogatutzat” emango balute ere, Euskal

Herriko testuinguru politikoak zein eragin izan dezakeen maila juridikoan ●

“Leporatzen dizkieten egitateak 2012tik aurrerakoak dira, ETak bere jardueran behin betikoz eteteko erabakia publiko egin ostekoak, hori garrantzitsua da”